



AURRETIAZKO KONTSULTA, GIZARTE EREMUAN LAN SOZIETATEAK ETA SOZIETATE KOOPERATIBOAK SUSTATZEKO ETA ERATZEKO DIRULAGUNTZAK LEHIA ASKEKO ARAUBIDEAN EMATEA ARAUTZEN DUTEN OINARRIAK ONESTEKO FORU GOBERNU KONTSEILUAREN FORU DEKRETU PROIEKTUARI BURUZ

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkartasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- b) onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- c) arauaren helburuak,
- d) ordezeko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, gizarte eremuan lan sozietateak eta sozietate kooperatiboak sustatzeko eta eratzeko dirulaguntzak lehia askeko araubidean emateko arau esparrua ezarri behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagartasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, 2018ko azaroaren 12ra arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



| | |
|-------------------------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| AURREKARIAK | Laguntza lerro berri bat da; hortaz, ez dago lehenagoko araubiderik |
| KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK | <p>Errealitatea da badirela gizarte jarduerak egiten dituzten pertsonak, zeinak ez baitira behar adina aintzatesten, bakarrik eta ez modu koordinatuan egiten dituztelako hein batean.</p> <p>Era berean, badira gure gizartean pertsonak, beren egoeratik ezin direnak behar bezala gizarteratu.</p> <p>Hortaz, sustatu nahi dena da bi taldeak antolatu daitezela, lan kooperatiba eta sozietateen bidez, halako moldez non lehenengoek beren lanean babes handiagoa izango duten eta bigarrenek gizarteratzeko erraztasun handiagoa.</p> |
| ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA | Laguntza lerro berrirako, kasuan kasuko deialdia egin baino lehen, beharrezkoa da hura arautuko duten oinarriak onestea, eta oinarri horiek dirulaguntzen arloan indarrean dauden arauetara eta hurrengo atal honetan zerrendatzen diren xedeetara egokitu beharko dira. |
| HELBURUAK | <ul style="list-style-type: none">- Sustatzea gizarte arloan lan kooperatibak eta sozietateak eratzea, haien kide diren edo gizarte eremuan jarduerak egiten dituzten pertsonen premiak bideratzeko.- Babestea gizarte eremuko lan kooperatiba eta sozietateen tutoretza.- Sustatzea garapen jasangarria, kontuan hartuta ekonomia, gizartea eta ingurumena. |
| ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK | Irizten zaio proposaturiko irtenbidea egokiena dela aurreikusitako xedeak erdiesteko. |